

ARRETA PSIKOSOZIALA ETA BIOSANITARIOA ZERBITZUAREN ESLEIPENA ONARTZEA

Xedea

Arreta psikosoziala eta biosanitarioa zerbitzuaren esleipena onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2013ko urriaren 31n, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaia batu da Arreta Psikosoziala eta biosanitarioa zerbitzuaren esleipenerako proposamenak aztertzeko.

Bigarrena: Bizitzen Fundazioa izan da proposamena aurkeztu dauan bakarra, 77.487,00 euroko proposamena egin daualarik.

Hirugarrena: Dokumentazio guztia zuzen dagoela ikusita, 2013ko azaroaren 21ean, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaia Arreta Psikosoziala eta biosanitarioa zerbitzua Bizitzen Fundazioari esleitzea proposatu dau 77.487,00 eurogaitik.

Laugarrena: Esleipenerako beharrezko dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin jako Bizitzen Fundazioari eta dokumentazio guztia zuzen aurkeztu dau.

Argudioak

Espedientea behar bezala izapidetu da

Erabagia

Lehenengoa: Arreta Psikosoziala eta biosanitarioa zerbitzua Bizitzen Fundazioari esleitzea 77.487,00 eurogaitik. (BEZatik salbuetsita dago)

Bigarrena: Kontratua sinatzea 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra.